

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 Julio 2021

'JazzEñe 2021' erakustaldian parte hartuko duten 8 artistak hautatuak izan dira

Ariel Brínguez Quintet, Caminero Quintet, Chano Domínguez Trío, Daniel García Trio, Smack Dab, Sumrrá, Alba Careta Group eta Manolo y Curra ditugu aukeratutako taldeak

Lau egunez, honako zortzi hautatuak nazioarteko Jazz programatzaileen aurrean bildu eta arituko dira bere burua gure mugetatik kanpo promozionatzeko asmoz

SGAE Fundazioaren nazioarteko programatzaileentzako espainiar Jazzaren zazpigarren erakustaldia 56 Jazzaldiaren barruan txertatuko da, Donostiako Udalaren eta Donostia Kulturaren laguntzarekin

SGAE Fundazioak, Donostiako Udalarekin, Donostia Kulturarekin eta Jazzaldiarekin lankidetzan, JazzEñeren VII. edizioa antolatu du. Ekimen honen helburua Estatu mailako jazz nazioartekotzea da, eta **uztailaren 22tik 25era burutuko da, Donostian, 56. Jazzaldiaren esparru paregabe.**

Lau jardunalditan zehar *showcase* formatuko 45 minutuko zortzi kontzertu hartuko ditu guztira, alegia, gaur egun genero honetako talde garrantzitsuenetako batzuekin: **Ariel Brínguez Quintet, Caminero Quintet, Chano Domínguez Trío, Daniel García Trío, Smack Dab, Sumrrá, Alba Careta Group eta Manolo y Curra.**

Talde hauek guztiak aurkeztutako 252 eskabideetatik aukeratu dira, eta SGAE Fundazioak Iberoamerikako bazkideei zuzendutako deialdi orokor baten bidez jasotakoak ditugu. **Jose Miguel Carmona** SGAE Fundazioko musika zuzendari instituzionala, **Javier Estrella** *JazzEñeko* zuzendaria, **Miguel Martín** *Jazzaldiko* zuzendaria, **Jose Francisco Tapiz** *Tomajazzeko* zuzendaria eta **Lara Vizuete** *Jazzeñe2018*an parte hartu zuen jazz abeslari eta egilea izan dira zortzi proposamen artistikoak aukeratu dituzten batzordearen integratzaileak.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus

fundación **sgae**

DX
donostia
kultura


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

Bertan izango diren ikusleekin batera, *JazzEñe2021ek* Europako hainbat emanaldi eta festibaletako ordezkari eta jazz-sustatzaileak bilduko ditu, guztiak SGAE Fundazioak gonbidatuta, nonbait, Espainian generoak bizi duen errealitatea ezagutu nahian. Kontzertuen osagarri gisa, talde parte-hartzaileek beren proposamenak nazioarteko gonbidatuekin azaldu eta eztabaidatzeko aukera izango dute, beren lana gure mugetatik haratago zabaltzea ahalbidetuko dieten nazioarteko lankidetzak akordioak lortu nahian.

Zortzi kontzertu lau egunetan, goizeko saiotan

JazzEñe21ek 8 kontzertu eskainiko ditu, eguerdiko 12:30tan hasiko diren 4 saio bikoitzetan banatuak. Kontzertuok Victoria Eugenia Antzokian izango dira eta sarrerak datozen asteetan jarriko dira salgai.

Uztailaren 22an inauguratuko da erakustaldia, 12:30ean, **Ariel Brínguez Quintet** boskotearen eskutik, *Nostalgia Cubana* diskaren aurkezpenarekin, alegia, 50eko hamarkadako Kubako soinu girora egindako bidaia, besteak beste, Bola de Nieve, José Antonio Mendez, Eliseo Grenet, Cachaíto López eta Juanito Márquez artista handiek landu izan zituzten formei omenaldia egiteko. Ordubete geroago, bigarren saioan, **Caminero Quintet** arituko da, jazza eta flamenkoa uztartzen dituen Pablo Martín Caminero buru duen taldea. Azken lanarekin, *Bost*, *JazzEñe2021en* lurreratuko da, non flamenkoaren haize tradizionalak berrikusiz, *granaina*, *segiriya*, *buleria* edo *soleá* bezalako erak uztartuko dituen, jakina, bere ikuspegi berezitik abiapuntuta.

Hurrengo egunean, uztailaren 23an, ostiralean, **Daniel García Tríok** bere azken lan kementsua interpretatuko du, Europako eszenatoki garrantzitsuenetakoetatik eraman dituen: *Travesuras*. Daniel García Diego, Reinier "el Negrón" eta Michael Olivera jazz europarraren hirukote indartsu eta originalenetako bat dira. 14:30ean itxiko du **Chano Domínguez Trioren** zuzenekoak jardunaldia, *Chumbulum* diskoa interpretatuz, non inoiz grabatu gabeko konposizioak berreskuratzen eta konfinamenduan sortutako pieza originalak eskaintzen dituen. Horacio Fumero kontrabaxu argentinarrak osatzen du hirukoa, askotan Tete Montoliu eta Gato Barbierirekin oholtzaratu den berak, David Xirgu bateria polifazetikoarekin batera hain zuzen ere, eta espainiar jazz nahasketa ukaezin honen edertasuna eta xarma transmititzeko kartel ezin hobea betetzeari ekingo diote zalantzarik gabe.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus

fundación **sgae**

DX
donostia
kultura


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

Kataluniako jazz eszenako proiekturik sendoenetako bat bihurtu da, bestalde, **Smack Dab**. *JazzEñe2021*aren hirugarren jardunaldiari hasiera emango dio, uztailaren 24an. Joan Casaresek, Oriol Vallesek, Lluc Casaresek, Jöel Gonzalezek eta Pau Salak osatutako boskoteak jazzaren tradizioaren eta musika afroamerikarraren arteko ibilbideak berrikusteko gune bat eraiki du, askatasunetik eta inprobisazio kolektibotik abiatuta. **Sumrrá** hirukote galiziarraren proposamenak agurtuko du eguna, 21 urteko ibilbidearen ostean, estudioko zazpigarren diskoa aurkeztera datorrela: *Sumrrá 7 Visións*. Bertan, Manuel Gutierrez piano-jotzaileak, Xacobe Martinez Antelo kontrabaxu-jotzaileak eta L.A.R. Legido bateria-jotzaileak gaur egungo momentuari buruz hausnartzen dute, nondik gatozen eta nora goazen akaso jazzaren bitartez itaunduz.

Uztailaren 25ean azken bi taldeak taularatuko dira: **Alba Careta Group** eta Javier Galiana eta María "La Mónica" burutzen duten bikotea, hots, **Manolo y Curra**. Alba Careta Group Kataluniako jazz-eszenako talderik oparoenetako bat da. *Alades* lelopeko bigarren lan diskografikoarekin Amsterdamen tronpeta ikasten eman dituen azken urteetako bizipenak erakustera dator, nonbait bere burua sotiltasunez eta hizkuntza organiko eta emozionalez baieztatuz, ziur asko, egungo jazz estatalaren proiektzio handiena duen argindarra bezala. Manolo y Curra, Javier Galiana piano-jotzailearen eta María "La Mónica" abeslari *chiclaneraren* arte eszenikoaren uztarketatik sortutako proiektua da. Bikote honek *JazzEñearen* zazpigarren edizioa itxiko du. Ia antzezlan gisa sortu den ekimen musikala dugu, xehetasunik txikieneraino planifikatutako inprobisazioan etengabe diharduena.

Egileei buruz

ARIEL BRÍNGUEZ Quintet

Ariel Brínguez saxofoi-jotzaile, konpositore eta moldatzaile kubatarak Simply Red, Chanquito Quintana, Tata Güines, Perico Sambeat, Javier Colina, Alain Pérez, Ojos de Brujo, Niña Pastori eta Joaquín Cortés bezalako artistekin batera lan egin du, eta Chucho Valdés eta Alejandro Sanzen eskutik bi Grammy irabazi ditu. Bakarkako artista gisa hiru lan argitaratu ditu: *Raíces en colores*, jazz fusioa Kuba atzean utzita; *Experience*, herri musikaren izen handietatik egindako ibilbidea bere begiradatik; eta *Nostalgia cubana*, esan bezala, aurtengo gure edizioan aurkeztuko duen diska. Proiektu pertsonal hau Kuba intimista baten oroimenean murgiltzen da, Bola de Nieve, José Antonio Méndez, Eliseo Grenet, Cachaíto López edo Juanito Márquez bezalako artista handien bitartez, bere ikuspegi bereziarekin erritmo afrokubatar dantzagarriak zeharkatuz, hala nola boleroa,

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus

fundación **sgae**

DX
donostia
kultura



56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

danzon delakoa edo *filina*, 50 hamarkadako hamarkadako Kuba eta pasioa giza-
esentzia gisa aldarrikatuz.

CAMINERO QUINTAT

Pablo Martin Caminero *JazzEñe2021* honetan lehorreratzen da, atzean estilo aniztasunak markatutako ibilbide harrigarri batekin eta bere boskote mitikoaren eskutik. Talde honekin 2005az geroztik diskoak argitaratzen eta jazzaren tenplu ospetsuenak zapaltzen etengabe ari da. Ariel Brínguez saxofoi-jotzailearen, Moisés Sánchez pianistaren, Michael Olivera perkusionistaren eta Carlos Martinen tronboiaren eskutik, jazz flamenkoaren barruan bide berriak aztertzen jarraitzen du, genero honen sustatzaile nagusietako bat dugula. Bere azken lanean, *Bost* (2020), *granaina*, *buleria*, *seguriya* edo *soleá* bezalako doinu eta erritmoak bisitatzen ditu, betiere bere ikuspegi berezitik abiatuta.

DANIEL GARCÍA TRÍO

Salamancatik bertatik, Estatu mailako jazz belaunaldi berri eta dardaratsuko jazzlari berezietako bat dela esan genezake. Daniel García bere sorterriko musika tradizioan sakontzen du, berau aberasten zein berritzen ere, nonbait, izugarrizko bagaje eklektiko bati esker jazzaren eratorririk esperimentalenak agertuz, jazz klasikoa edo eta flamenkoa uztartuz. Emaitza, Reinier "el Negrón" eta Michael Oliverarekin batera egindako adierazkortasun eztanda zirraragarri bat da, askorentzat, Europako jazzgintzaren hirukote indartsu eta originalenetakoa osatzen dutela. *Travesuras* Alemaniako ACT zigiluan argitaratutako lehen disko nazionala da eta Jazzaldiaren baitan aurkeztuko dute.

CHANO DOMÍNGUEZ

Chano Dominguez sei urtez AEBn eman ondoren itzuli zen Espainiara pandemia etxean pasatzeko, bere etxetik gertu. Nola ez, une egokia izan zen bere katalogoa berrikusteko, pieza berriak konposatzeko eta kolaboratzaile zaharrek hurbiltasuna berreskuratzeko. Guzti honetatik sortu da *Chumbulum* izeneko diska, jazzak flamenkoan eta, harrigarria bada ere, afroamerikar tradizioan bere orkoia aurkitzen duen lan berria. Bertan, Domínguez maisua berriz ere Horacio Fumerorekin (Tete Montoliuren ohiko kolaboratzailea) eta David Xirgu bateria polifazetikoarekin inguratzen zaigu.

SMACK DAB

Joan Casaresek, Oriol Vallesek, Lluç Casaresek, Jöel Gonzalezek eta Pau Salak osatzen dute, eta 2015ean sortu zuten musikari eskarmentudun huek material berria eskaintzeko aukera izan dezaten, jazzaren zein musika afroamerikarraren arteko ibilbideak berrikusteko asmoz, bide batez inprobisazio kolektibo aske eta

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus

fundación **sgae**

DX
donostia
kultura


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

arriskatu bat bultzatuz. Sei urteko ibilbidean, boskoteak Jesse Davis, Perico Sambeat, Vincent Herring eta Toni Belenguerreren mailako bakarlariekin grabatu eta jo du, eta Kataluniar eszenaren talde garrantzitsuenetako bat bilakatu da.

SUMRRÁ

21 urteko ibilbidea elkarrekin egin eta munduan zehar ehunka kontzertu eman ondoren, nazioartean gure jazzaren markarik ezagunenetako sendotzen dihardutela, Galiziako Sumrrá hirukoteak etenaldi bat egiteko aukera izango du, eta egungo uneari buruzko gogoeta bat proposatuko digu *7 visionés* diskaren aurkezpenarekin. Nondik gatozen, non gauden eta nora goazen galderak melodia eta erritmoen bitartekotzat hartuz, proposamen honek Manuel Gutierrez, Xacobe Martinez Antelo eta L.A.R. Legidoren estatusa bikainki berresten du, kultuzko taldeen zerrendan kokatzen direla jada.

ALBA CARETA GROUP

Alades jazzaren argirik distiratsuenetako baten baieztapena da. Buelta gutxi merezi ditu baieztapen horrek. 2018an Kataluniako jazz-eszenan gogor sartu ondoren *Orígens* diskarekin (kritikak eta publikoak goraipatutako lana) eta urte horretako Jazz-disko onenaren Enderrock Saria irabazi ondoren, Alba Caretak Kataluniako jazzgintzan etorkizun handieneko taldea den proposamena lideratzen du, azken urteetan zehar Amsterdango Goi mailako Musika Eskolan Tronpeta masterra egiten bizi izandako esperientziak konposizio bilakatuz.

JAVIER GALIANA eta MARIA "LA MÓNICA"

Manolo y Currak agertokietako konplexutasunak, *duende* delakoaren misterioak eta zuzeneko bizitzaren nondik norakoak irudikatzen dituzte. Hiru elementu horiek uztartzen ari diren bi pizti eszenikoren arteko elkartasuna osatzera datoz: Javier Galiana piano-jotzailea eta María "La Mónica" artista *chiclanera*, Cadizeko flamenkura edozein tendentziarekin urtzeko prest ditugun artistak dira, antzezlan bihurtutako sinbiosi bat, larruazalean egina, inprobisazio hausnartu bat bezala eraikia, xehetasun txikieneraino pentsatua.

'JazzEñe'ri buruz

JazzEñe SGAE Fundazioaren programa bat da, Espainian egiten den jazz nazioartean zabaltzeko, Estatu mailako jazz-taldeek jaialdietan parte har dezaten sustatzeko,

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus

fundación **sgae**

DX
donostia
kultura


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

SGAEko bazkideentzako nazioarteko birak sustatzeko eta sektoreko profesionalen (egileak, artistak, managerrak, programatzaileak, jaialdietako zuzendariak, diskoetxeak...) arteko topaketak eta esperientzien zein ezagutzaren trukea bultzatzeko sortua.

2014an Madrilen ospatu zen lehen edizioaren ondoren, ekimenak Valentziara jo zuen, eta ordutik Zaragoza eta Malagatik ere igaro da. Orain, zazpigarren edizioan, Europako jaialdietako zuzendarien eta ikusleen aurrean Espainiako jazzaren errealitatea aurkeztuko duen erakusketa hau Donostiako Jazzaldiaren testuingurura lekualdatu da lehen aldiz; izan ere, goi mailako edizio paregabe honek 56 edizio betetzen ditu eta jazzaren gotorleku handienetako bat da gurean dagoeneko, baina baita Europan eta munduko gainerako hainbat lekutan ere.

Urteotan, artista askok Europa osoko jaialdietan interpretatu dituzte beren erreperitorioak, SGAE Fundazioaren *Eñe* programei esker. Chicuelo & Mezquida artistak, Zaragozako ediziotik aterata, Tokyo Jazz Festival delakora ailegatu ziren. Era berean, SGAE Fundazioak Antonio Lizana, Rycardo Moreno eta Pedro el Granaíno *Eñe* protagonistak aurkeztu zituen 2018an, Amsterdam eta Rotterdamen, *Biennale flamenkoaren Gau Zuria* proiektuaren barruan. Aipamen berezia merezi du 2017an Nazioarteko Amersfoort Jazzaldian (Herbehereak) parte hartu zuten lau taldeak *JazzEnetik* pasatutakoak izatea: Camerata Flamenco Project, Nono Garcia Trío, Alexey Leon Trío eta Marco Mezquida Solo.

PROGRAMAZIOA

2021eko uztailaren 21etik 25era

Saioak: 12,30 eta 13,30ean

Non: 56 Festival Jazzaldia - Donostia - Victoria Eugenia Antzokia

2021eko UZTAILAREN 22a, OSTEGUNA

12.30 ARIEL BRÍNGUEZ QUINTET

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus

fundación **sgae**

DX
donostia
kultura


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 Julio 2021

Ariel Brínguez – Saxo tenore eta sopranoa

Pablo Gutiérrez – Pianoa

Javier Sánchez – Gitarra

Reinier Elizarde 'El Negrón' - Kontrabaxua

Georvis Pico – Bateria

13.30 CAMINERO QUINTET

Pablo Martín Caminero – Kontrabaxuaa

Moisés Sánchez - Pianoa

Ariel Brínguez – Saxoa

Carlos Martín - Tronboia

Michael Olivera – Bateria

2021eko UZTAILAREN 23a, OSTIRALA

12.30 DANIEL GARCÍA TRÍO

Daniel García Diego – Pianoa

Reinier Elizarde 'El Negrón' - Kontrabaxua

Michael Oliviera – Bateria

13.30 CHANO DOMÍNGUEZ

Chano Domínguez - Pianoa

Horacio Fumero - Kontrabaxua

David Xirgú – Bateria

2021eko UZTAILAREN 24a, LARUNBATA

12.30 SMACK DAB

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus

fundación **sgae**

DX
donostia
kultura


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 Julio 2021

Joan Casares - Bateria

Oriol Vallès - Tronapeta

Lluc Casares - Saxoa

Jöel González - Piano a

Pau Sala - Kontrabaxua

13.30 SUMRRÁ

Manuel Gutiérrez - Pianoa

Xacobe Xurxo Martínez - Kontrabaxua

Luis Alberto Rodríguez Legido - Perkusioa

2021eko UZTAILAREN 25a, IGANDEA

12.30 ALBA CARETA GROUP

Alba Careta - Ahotsa eta tronpeta

Lucas Martínez - Saxo tenorea

Roger Santacana i Hervada - Pianoa

Giuseppe Campisi - Kontrabaxua

Josep Cordobés - Bateria

13.30 MANOLO Y CURRA

María Isabel Ávila - Ahotsa eta perkusioa

Javier Galiana - Pianoa

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus

www.jazzaldia.eus

fundación  **sgae**

 donostia
kultura


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN